

EAEko 2024-2025 GEM Txostenaren ondorioak

EAEko 2024-2025 Global Entrepreneurship Monitor (GEM) Txostenak euskal ekintzailtza-ekosistemaren egonkortasunari buruzko diagnostikoa eskaintzen du, kalitate, berrikuntza eta hazkuntza-ikuspegiaren arloko seinale esperantzagarriekin batera. Honako hauek dira ondorio nagusietatik aipagarrienak:

_ Egonkortasuna, hazteko tartearekin. Jarduera ekintzailearen tasak (TEA) bilakaera egonkorra mantendu du Euskadin, aurrerapenen adierazgarri txikiekin, eta azken bi hamarkadetako batezbestekoa puntu batean baino gehiagotan gainditu da. Badirudi ekintzailtza potentzialaren goragune handia apaldu dela, nahiz eta oraindik ere batezbesteko historikoa gainditzeko duen. TEA Euskadiko garapen ekonomikoaren mailarekin bat dator, eta ereduak ez da masiboa, selektiboagoa baizik. Hala ere, zifrek Europako batezbestekoaren azpitik jarraitzen dutenez, "ekintzailtza-tentsioan" hobetzeko tartea dago; alderdi hori gakoa da ekoizpen-ehuna berritu, susperraldian dauden sektoreetarantz dibertsifikatu eta aldaketa globalen aurreko erresilientzia handitzeko.

_ Aldaketa kualitatiboa ekintzailtza-jardueran. Ekoizpen edo prozesuetan berritzaileak diren negozioen proportzioa nabarmen handitu da, proiektuen hasierako tamaina eta hazteko itxaropenak ere, salmentak nazioartekotzean marka lortu da, eta gizarte-inpaktuari eta aberastasuna sortzeari lotutako motibazioek indarra hartu dute. Oro har, faktore horiek adierazten dute ekintzailtza berritzaileagoa dela, mundura irekiagoa, eta eraldatze-ahazketa handiagoa dagoela.

_ Premiak eragindako ekintzailtza gutxiago. Enplegu faltagatik ekintzailtza diharduten pertsonen proportzioa nabarmen murriztu da (2023an ehunekoa % 15,5 zen, eta 2022an, berriz, % 33,3). Hala ere, kolektibo zaurgarrietara egokitutako programak mantendu behar dira (langabeak, migratzaileak, etab.), prestakuntza praktikoa, aholkularitza eta mikrofinantzaketa bateratzen dituztenak; izan ere, integrazte horrek proiektuen kalitatea eta bizirautea hobetzen ditu.

_ Lan-merkatua eta ekintzailtzarako aukera. Enpleguaren indarrak eta sektore estrategikoetan profil teknikoaren inguruan dagoen eskariak eragin dezakete aukerak daudenean ekintzailtza jardutea ez erabakitzea. Horrek agerian jartzen du barne-ekintzailtzak eta formula hibridoak (ekintzailtza partziala, lizentzia malguak, proba-inguruneak) erakundearen barneko ekintzailtza-talentu latentea kanalizatzeko duten garrantzia.

_ Belaunaldien arteko dibertsifikazioa. Ekintzaileen batez besteko adinak behera egin du, seniorrak (55-64 urte) gailendu diren hainbat urteren ondoren inflexio-puntua ekarri. Biztanleria gaztearen artean jarduera areagotu da, eta horrek ekosistema anitzagoa eta orekatuagoa izaten laguntzen du. Horrek aukera ematen du bizi-etaparen arabera banatutako politikak eta belaunaldi arteko aholkularitza-programak ezartzera, OCDEren ekintzailtza inklusiborako agendarekin bat etorri.

_ Genero-arrakalaren iraunkortasuna. Generoari dagokionez, porrotaren beldur handiagoa, aukeren hautemate txikiagoa eta hasteko kapital txikiagoa elkartu dira, eta horrek eragin dezake emakumeek lideratutako proiektuen tamaina eta hazteko abiadura murriztea. Izan ere, hauteman da berriz ere EAEn emakumeek sustatutako negozioetan hazkuntza-itxaropen apalagoak zabaldu direla. Gainera, hasiera batean berritzeko eta nazioartekotzeko joera txikiagoa dute; eta joera hori aurreko txostenetan identifikatu zen dagoeneko.

Horretaz gain, datuek berresten dute nazioarteko ebidentziarekin² bat datorren eredua badagoela: emakume ekintzaileek errenta-maila eta aberastasun apalagoak dituzte abiapuntu. Desabantaila horrek eragiten du finantzaketa lortzeko orduan egiturazko arrakala egotea, eta emakumeen proiektuen etorkizuneko ibilbideak baldintzatu ditzake.

Diagnostiko horren aurrean, beste herrialde eta eskualde batzuetan emaitza positiboak ekarri dituzten esku-hartze mekanismoak indartzea komeni da. Horien artean, aipatzekoak dira genero-ikuspegia duten finantzaketa-tresnak (bermeak eta mikrofinantzak), autokonfiantza handitu eta porrotaren beldurra apaltzen dituzten sareen eta aholkularitzako programak, baita zaintzari eta kontziliazioari lotutako eragileak aintzat hartzen dituzten politikak ere.

Oro har, helburua da gaur egun emakumeen proiektuek gizonen pareko baldintzetan finkatu, lehiatu eta eskalatzea oztopatzen duten tentsioak murriztea.

OCDE/ Europako Batzordea (2023): *The Missing Entrepreneurs 2023: Policies for Inclusive Entrepreneurship and Self-Employment*. OECD Publishing, Paris.

² OCDE (2021): *Entrepreneurship Policies through a Gender Lens*. OECD Studies on SMEs and Entrepreneurship. OECD Publishing, Paris.

_ Ekintzailtza migratzaileen artean

Euskadin migratzaileek bultzatutako ekintzailtza-jardueran egon den igoera nabarmena fenomeno oso interesgarria da.

Nazioarteko talentua eta talentu migratzailea erakarri eta aprobetxatzeko ahaleginak indartzea etorkizunerako aukera estrategikoa da.

Kolektibo ekintzaile migratzaileak berrikuntzari, sorkuntza-nahasketari eta ekoizpen-ehunaren dibertsifikazioari egiten dien ekarpenari buruzko ebidentzia dago³. Aldi berean, oztopo ekonomiko, kultural edo linguistikoak murrizten dituzten politika inklusiboak eta programa espezifikoak zabaldu behar dira, baita tokiko sare profesionaletarako sarbidea errazten dituztenak ere, eskualdeko ekosisteman guztiz integratuta daudela bermatzeko.

_ Ekintzailtza erronka global handien aurrean

Ekintzailtzak eginkizun garrantzitsua izan dezake etorkizuneko erronka handiei erantzuteko orduan, batez ere bi arlotan: gizarte-inpaktua eta ingurumen- inpaktua, eta I+G+b arlotik ezagutza transferitzea:

1. Inpaktu eraldatzailea duten proiektuak.

Artatu gabeko premia sozialei eta ingurumenekoei erantzutera bideratutako ekimenek hainbat

aukera eskaintzen dituzte, eta komeni da Euskadik horiek aprobetxatzea. Horretarako, lankidetzak-mekanismoak, finantzaketa espezializatua eta soluzio horiek eskalatzea eta irismena maximizatzea ahalbidetzen duten sareak gakoak dira.

2. I+G+b arloaren transferentzia eta deep tech-a sustatzea.

Ekintzailatza ezinbesteko aliatua da ikerketan, garapenean eta berrikuntzan dauden aurrerapenak merkaturatu daitezkeen soluzio bihurtzeko. Ildo horretatik, *deep tech*-a sustatzea Europako politikekin bat datorren lehentasun estrategikoa da.

EA Eren abiapuntuko posizioa oso sendoa da: industria-ekintzailatzaren eta irismen handiko berrikuntzan oinarritutako proiektuen igoerak potentzial hori indartzen du. Horiek, elkartuta, ekintzailatzaren eraldaketa-ahalmena kanalizatu eta lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialera bideratzeko agertoki ezin hobearen eratzeko dute.

³ OCDE (2024): International Migration Outlook 2024, OECD Publishing, Paris.